

KIROLDEGIKO KONTUAK

Orain dela urte bat, Altsasun kiroldegia ireki zuten.

Oso polita eta handia zen. Bi pisu zeuzkan, goian soinketa gunea eta azpian bi igerileku, jakuzia eta bi sauna zeuden. Oso ongi zegoen baina taberna bat falta zitzaion.

Igerilekuan, Joxek lan egiten zuen, soroslea zen.

Herrian oso ezaguna zen ardoa pila bat gustatzen zitzaiolako.



Egunero haurrak igeri egiten ikasten aritzen ziren eta egun batean, igerilekuan, Andrea, Asier eta Idoia zeuden.



Andrea, oso bihurria zen, ile gorria zeukan eta bere azala oso txuria eta pekatsua zen. Idoia, bere lagun miña zen eta igerizale amorratua. Oso liraina zen, ile kizkurrarekin eta oso jatorra zen, denen laguna. Asier, ikastuna zen, betaurrekoduna eta bere ikaskideek beti bihurrikeriak egiten zizkioten.

Igerilekuan zeuden eta Joxe ikusi zuten, ardoa edaten eta telebista ikusten. Andrea bere bulegora sartu zen eta ezusteko bat eman zion. Joxe beldurtu zen eta botoi bat sakatu zuen konturatu gabe. Bat-batean, jakuzziko burbuilak oso indartsu ateratzen hasi ziren eta momentu horretan emakume bat zegoen etzanda. Emakumea zeruraino igo zen eta oihuka egiten hasi zen.

Ikasleek zer gertatzen ari zen ikusi zuten. Andrea oso urduri jarri zen eta ezin zuen ezer ez egin. Asier berriz

bulegon sartu zen, Joxe abisatu zuen eta botoi bat sakatu zuen. Momento horretan, ura gelditu zen eta emakumea behera erori zen. Orduan golpe bat hartu zuen buruan eta konortetik gabe geratu zen. Idoia, igerilari ona zenez, emakumea atera zuen. Joxe lasai lasai etorri zen eta ahoz-ahokoa egin zion. Emakumeari ez zitzaion ardoa batere gustatzen eta Joxeren usain eta zapoarekin esnatu egin zen. Orduan, zaplaztako bat eman zion Joxeri eta gero bat-batean maitasunak atea jo zuen eta maitemindu egin ziren.

Hilabete batzuk pasa ziren eta elkarrekin kiroldegian taberna dotore bat ireki zuten...



baina alkoholik gabe.

ETA HALA BAZAN,
SAR DADILA...
ALTSASUKO“TABERNAZAN”

Egileak: Jose Luis Ojer, Cristina Troyano eta Irene Irigoien